

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2/2017 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 28koa, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duena.

Konstituzio Auzitegiaren 2017ko otsailaren 16ko epaiak, aurtengo martxoaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuak, adierazi du Gipuzkoako hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.1, 4.2.a) eta 7.4 artikulua konstituzioaren aurkakoak eta deusezak direla, baina, soil-soilik, balio gehikuntzarik gabeko egoerak zergapetzen diren kasuei dagokienez.

Epai hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak otsailaren 5ean emandako autotik ondorioztatu da, auto horretan erabaki baitzen Auzitegi horri konstituzio-kontrakotasun arazo bat aurkeztea 16/1989 Foru Arauaren 1. eta 7.4 artikulua direla-eta (badira beste artikulua batzuk ere, kasu honetarako aipatuko ez direnak). Auzia planteatu zen litekeena delako hiru printzipio urratu izana: gaitasun ekonomikoarena, konfiskatzeko debekua, eta defentsarako eskubidearena.

Epaiaren oinarri juridikoetan esaten denez, zerga egitea edo legean aurreikusitako egoera gauzatzeak zerga obligazioa sortzea baldin badakar gaitasun ekonomikoaren adierazpen bat izateagatik, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen foru arauaren kasuan benetako fikzio juridiko baten aurrean gaude. Izan ere, haren arabera, hiri izaerako terreno baten titulartasun hutsak beti sorrarazten du titularrarentzat, hura eskualdatzen den momentuan, zergapetu behar den balio gehikuntza bat, kasu bakoitzeko zirkunstantzia errealak kontuan hartu gabe. Horren ondorioz, horrek badakar, aldi berean, gaitasun ekonomiko zergapegarri bat, eta, hari dagokionez, arauak ez du ahalbidetzen beste emaitzarik bere balorazio erregelak aplikatzetik ondorioztatzen dena baino.

Hala ere, goi auzitegiak dio legegileek erabat zilegi dutela aukeratzeko zerga politikak balio gehikuntzak zergapetzea gaitasun ekonomiko potentzialak objektiboki kuantifikatuko dituen sistema bat erabiliz eta ez agerian jarritako gaitasun ekonomikoaren arabera. Guztiarekin ere, kontuan izan behar da gauza bat dela errenta potentzial bat zergapetzea (hiri izaerako terreno guztietan denboraren poderioz gertatzen den uesteko balio gehikuntza) eta beste bat errenta irreal bati ezartzea zerga. Diferentzia hori azpimarratzea garrantzia handikoa da, zeren eta, zergapetzen dena errenta irreal bat bada, zalantzan jarritako prezeptuak urratuko luke konstituzioan aipatzen den gaitasun ekonomikoaren, eta printzipio hori hautsita geratzen da tributuarekin zergapetutako gaitasun ekonomikoaren potentziala denean, gaitasun ekonomikorik ez dagoenean edo hura itxurazkoa denean.

Epaiak dioenez, hiri izaerako terrenoen balio gehikuntzari, edo balio gutxipenari, 16/1989 Foru Arauaren 4. eta 7.4 artikuluetan ematen zaien tratamenduak ez du arrazoizko justifikaziorik. Izan ere, zergaren subjektu pasiboek ezartzen zaienean denboraren poderioz gertatzen diren balio gehikuntzen zama tributariora jasan behar dutela, berez gaitasun ekonomikorik adierazten ez duten egoerak zergapetzen ari dira, eta horrek erabat urratzen du Konstituzioaren 31.1 artikuluan bermatzen den gai-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Decreto Foral-Norma 2/2017, de 28 de marzo, por el que se modifica el impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana.

La sentencia del Tribunal Constitucional de fecha 16 de febrero de 2017, publicada en el *Boletín Oficial del Estado* de 25 de marzo de este mismo año, declara inconstitucionales y nulos los artículos 4.1, 4.2.a) y 7.4 de la Norma Foral 16/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en la medida, únicamente, en la que someten a tributación situaciones de inexistencia de incremento de valor.

Dicha sentencia es resultado del auto del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo núm. 3 de Donostia, de fecha 5 de febrero, por el que se acordaba elevar al citado Tribunal una cuestión de inconstitucionalidad en relación con los artículos 1 y 7.4 de la Norma Foral 16/1989, entre otros preceptos que no vienen al caso citar en este momento, por posible infracción tanto del principio de capacidad económica y de la prohibición de confiscatoriedad como del derecho de defensa.

Entre los fundamentos jurídicos de la sentencia, se señala que si el hecho imponible es el acto o presupuesto previsto por la ley cuya realización, por exteriorizar una manifestación de capacidad económica, provoca el nacimiento de una obligación tributaria, en el caso de la norma foral que regula el impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana estamos en presencia de una auténtica ficción jurídica conforme a la cual la mera titularidad de un terreno de naturaleza urbana genera, en todo caso, en su titular, al momento de su transmisión y al margen de las circunstancias reales de cada supuesto, un incremento de valor sometido a tributación, y por lo tanto una capacidad económica susceptible de imposición, respecto del cual, la norma no permite acreditar un resultado diferente al resultante de la aplicación de las reglas de valoración que contiene.

Ello no obstante, señala el alto tribunal que es plenamente válida la opción de política legislativa dirigida a someter a tributación los incrementos de valor mediante el recurso a un sistema de cuantificación objetiva de capacidades económicas potenciales, en lugar de hacerlo en función de la efectiva capacidad económica puesta de manifiesto. Ahora bien, es importante tener presente que una cosa es gravar una renta potencial (el incremento de valor que presumiblemente se produce con el paso del tiempo en todo terreno de naturaleza urbana) y otra muy distinta es someter a tributación una renta irreal, diferencia esta que es importante subrayar porque, si así fuese, es evidente que el precepto cuestionado sería contrario al principio constitucional de capacidad económica, dado que dicho principio quiebra en aquellos supuestos en los que la capacidad económica gravada por el tributo sea no ya potencial sino inexistente o ficticia.

Se afirma en la sentencia que el tratamiento que los artículos 4 y 7.4 de la Norma Foral 16/1989 otorgan a los supuestos de no incremento o, incluso, de decremento, en el valor de los terrenos de naturaleza urbana, carece de toda justificación razonable en la medida en que, al imponer a los sujetos pasivos del impuesto la obligación de soportar la misma carga tributaria que corresponde a las situaciones de incrementos derivados del paso del tiempo, se están sometiendo a tributación situacio-

tasun ekonomikoaren printzipioa. Hori guztia dela-eta, epaitu-tako prezeptuak konstituzioaren aurkakoak deklaratu behar dira, baina, soil-soilik, balio gehikuntzarik ez izateagatik gaitasun ekonomikorik adierazten ez duten egoerak tribututik kanpo uztea aurreikusi ez duten neurrian.

Foru dekretu-arau honen xedea da berehalako erantzun arauemaile bat ematea aipatutako sententziak auzitan jarritako zergaren aplikazioan dituen ondorioetarako. Alabaina, Konstituzio Auzitegiak adierazi bezala, horrek ez du eragozten gerora bes-telako aukera arauemaile bat lasaiago aztertzea ente publikoen hirigintzagatik sorrarazten diren gainbalioetatik ondorioztatutako gaitasun ekonomikoaren kuantifikazio objektiboa zehazteko.

Horretarako, egoki iritzi da araututa uztea terreneen balio gehikuntzarik eza dagoenean edo balio gutxipenak gertatzen direnean, egoera horiek ez direla zergapetuko, eta zergatik kanpo geratzen direnez, ez dela beharrezkoa izango kasu horietan zerga oinarria kalkulatzeko. Horrekin, 16/1989 Foru Arauaren 4.1, 4.2.a) eta 7.4 artikulua aplikagarriak izango dira, bakar-bakarrik, baldin eta lurrek balio gehikuntzarik badute eta, beraz, artikulua horien edukia konstituzioarekin bat badator. Horrela lortuko da sententziak dioena betetzea.

Planteatutako erregulazioak komenigarri egiten du mekanismo bat ezartzea haren bitartez jakiteko zer kasutan ez dagoen gehikuntzarik edo noiz dagoen minusbaliorik, eta, horretarako, sistema objektibo bat erabiltzen saiatu da, udalek erraz aplikatu dezaketena: eskualdaketa balioaren eta eskurapen balioaren arteko diferentzia. Metodo horrek ahalbidetuko du ziurtasunez zehaztea balio gehikuntzarik izan den edo ez. Litekeena denez balio horiek ez uztea agerian zein den terreneoi dagokien balio zatia, beharrezkoa da erregela bat ezartzea balio hori bereizteko, eta erregela hori izango da lurzorua balioak balio katastralarekiko duen zati proportzionala aplikatzeko.

Laburbilduz, zerga mugatuko da lurrek balio gehikuntza duten kasuetara, sententziak exijitzen duen bezala. Alabaina, balio gehikuntza badagoela irizten den momentutik, kalkulu sistema ez da ezertan ere aldatzen. Hortaz, foru dekretu-arau honen helburua ez denez zergaren foru araua aldatzea, hura sententziaren edukira egokitzea baizik, ez da aldaketarik sartu zerga oinarria kalkulatzeko moduan, Auzitegiak ontzat eman baitu lurzoruak balio gehikuntza duen kasuetarako.

Bestalde, eta segurtasun juridiko handiagoa emate aldera, testu arauemaile honetan xedapen iragankor bat gehitzen da, eta haren helburua da ezartzea zer ondorio izango dituen eragiketetan erregulazio berriak, zerga sorrarazi dutenean baina haien likidazioak oraindik irmoak ez direnean.

Testuaren bukaeran, azken bi xedapen gehitzen dira. Lehenengoak baimena ematen dio Diputatuen Kontseiluari foru dekretu-arauaren xedatutakoa garatzeko, eta bigarrenak ezartzen du noiz jarriko den indarrean foru dekretu-araua. Zehazki, bertan esaten da foru dekretu-arauak ondorioak sortuko dituela Konstituzio Auzitegiaren 2017ko otsailaren 16ko epaia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egun berean (hau da, 2017ko martxoaren 25etik aurrera) sortzen diren zerga egitate guztiatarako, betiere xedapen iragankorrean ezarritakoa eragotzi gabe.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du presazko arrazoiak daudenean Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela; xedapen berezi horiek foru dekretu-arauak izango dira eta ezin eragingo diete foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari.

Foru dekretu-arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta osorik bozkatu behar dira berehala, baliozkotutako izateko.

nes de hecho inexpressivas de capacidad económica, lo que contradice frontalmente el principio de capacidad económica que la Constitución garantiza en el art. 31.1. De esta manera, los preceptos enjuiciados deben ser declarados inconstitucionales, aunque exclusivamente en la medida que no han previsto excluir del tributo a las situaciones inexpressivas de capacidad económica por inexistencia de incrementos de valor.

El presente decreto foral-norma tiene por objeto dar respuesta normativa de urgencia a los efectos de la sentencia citada en la aplicación del impuesto cuestionado, sin perjuicio de, como señala el Tribunal Constitucional, establecer más adelante una opción normativa más sosegada en la determinación del sistema de cuantificación objetiva de capacidades económicas resultantes de las plusvalías generadas por la acción urbanística de los entes públicos.

Para ello, se ha considerado oportuno aprobar una regulación en virtud de la cual no se someterán a gravamen los no incrementos ni las disminuciones del valor de los terrenos, de tal forma que, al quedar este tipo de operaciones al margen del impuesto, no será necesario proceder al cálculo de la base imponible en estos casos. Con ello, los artículos 4.1, 4.2.a) y 7.4 de la Norma Foral 16/1989, sólo resultarán de aplicación a los casos en los que exista un incremento del valor de los terrenos y, por tanto, su contenido sea constitucional, cumpliendo así con el fallo de la sentencia.

La regulación planteada aconseja establecer algún mecanismo para conocer si existe ese no incremento o esa minusvalía, para lo que se ha tratado de utilizar un sistema objetivo, que resulte de fácil aplicación para los ayuntamientos, como es la diferencia entre los valores de transmisión y adquisición. El empleo de este método permitirá determinar con certeza la existencia o no de un incremento de valor. Dado que dichos valores pueden no desglosar la parte del valor correspondiente a los terrenos, resulta necesario establecer una regla que permita diferenciar dicho valor, aplicando la parte proporcional del valor del suelo con respecto al valor catastral.

En definitiva, el impuesto se ve acotado a supuestos en los que exista un incremento de valor de los terrenos, tal y como exige la sentencia. Ahora bien, una vez determinada la existencia del mismo, el sistema para su cálculo se mantiene intacto. Así pues, en tanto en cuanto el objeto de este decreto foral-norma no es modificar la norma foral del impuesto sino adecuarla al contenido de la sentencia, no se ha visto modificado el cálculo de la base imponible del mismo, en tanto que el Tribunal lo admite en casos en los que exista un incremento del valor del suelo.

Por otra parte, y también en aras de una mayor seguridad jurídica, se incorpora al presente texto normativo una disposición transitoria que establezca los efectos que conlleva la nueva regulación con respecto a operaciones que hayan supuesto el devengo del impuesto y cuyas liquidaciones aún no hayan adquirido firmeza.

Por último, se incorporan dos disposiciones finales. La primera relativa a la habilitación normativa al Consejo de Gobierno Foral para el desarrollo de lo dispuesto en el decreto foral-norma, y la segunda referente a la entrada en vigor del mismo. En particular, establece que surtirán efectos para todos los hechos imposables devengados a partir de la fecha de publicación de la sentencia del Tribunal Constitucional de 16 de febrero de 2017 en el *Boletín Oficial del Estado*, es decir, a partir del 25 de marzo de 2017, sin perjuicio de lo dispuesto en la disposición transitoria.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de que el Consejo de Gobierno Foral, por razones de urgencia, dicte disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales.

Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación de totalidad en las Juntas Generales para su convalidación.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Hiri-lurren balio gehikuntzaren zehazta-pena.

1. Uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak erregulatzen duen hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren betebeharr tributario nagusia sortu dadin, beharrezkoa izango da terreneen balio gehikuntza bat gertatzea haien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzeagatik edo terreno horien gaineko jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratu edo eskualdatzeagatik.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, terreneen balio gehikuntza zehazteko bi balio hauek alderatuko dira: terrenearen eskurapen balioa edo, dagokion kasuan, jabaria mugatzen duen gozamen eskubide errearen eraketa edo eskurapenari dagokiona, eta terrenearen eskualdaketa balioa edo, dagokion kasuan, jabaria mugatzen duen gozamen eskubide errearen eraketa edo eskualdaketari dagokiona.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren balioak izango dira kontuan hartuko direnak edo, dagokion kasuan, aintzat hartu beharko lirakekeenak, terreneen jabetza eskualdatzea edo haien jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratu edo eskualdatzea kasuan kasuko tributuekin zergapetzearen ondorioetarako.

Apartatu honetan hizpide diren balioei ez zaie gehituko inolako gasturik, hobekuntzarik edo beste ezein kontzepturik, eta ez dira eguneratuko denbora igarotzeagatik.

2. apartatu honetan terreneen balio gehikuntza zehazteko erreferentzia gisa aipatzen diren balioetan ez bada berariaz bereizten zer balio den egozgarria eraikuntzari eta zein lurzoruari, erreferentziatzat hartuko da zer proportzio duten lurzorua-ren balioak eta eraikuntza balioak zergaren sortzapenaren unean indarrean dagoen balio katastralarekiko.

3. Data hauek hartuko dira kontuan aurreko 2. apartatuan aipatzen diren balioak zehazteko: zein egunetan eskuratu den terrena edo, dagokion kasuan, eratu edo eskuratu den jabaria mugatzen duen gozamen eskubide erreala, eta zein egunetan eskualdatu den terreno hori edo, dagokion kasuan, eratu edo eskualdatu den jabaria mugatzen duen gozamen eskubide erreala.

4. Terrenoak ez badu balio gehikuntzarik artikulu honetan xedatutakoaren arabera, gerora egin daitezkeen eskualdaketan ondorioetarako kontuan hartuko dira etorkizuneko eskualdatzaileak terrena eskuratu eta eskualdatzean terrena dagozkoen balioak.

5. Nahiz eta terreneok ez izan balio gehikuntzarik artikulu honetan adierazitakoaren arabera, beti aurkeztu beharko da uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergarenak, 7. artikuluan arautzen duen aitorpena.

6. Terreneok balio gehikuntza baldin badute artikulu honetan xedatutakoaren arabera, zerga oinarria, zerga kuota eta hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren gainerako elementuak zehaztu beharko dira uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren lotuta aplikagarria den araubide iragankorra.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo único. Determinación del incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.

1. Para que nazca la obligación tributaria principal del impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana, regulado en la Norma Foral 16/1989, de 5 julio, será necesaria la existencia de incremento de valor de los terrenos, puesto de manifiesto a consecuencia de la transmisión de su propiedad por cualquier título, o de la constitución o transmisión de cualquier derecho real de goce limitativo del dominio, sobre los mismos.

2. A los efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, la existencia del incremento de valor de los terrenos se determinará por comparación del valor de adquisición de la propiedad o, en su caso, de la constitución o adquisición del derecho real de goce limitativo del dominio, y del valor de transmisión o, en su caso, de la constitución o transmisión del derecho real de goce limitativo del dominio.

Los valores a que se refiere el párrafo anterior serán los tenidos en cuenta o, en su caso, los que deberían tenerse en cuenta, a efectos de los respectivos impuestos que sometan a gravamen la transmisión de la propiedad de los terrenos o la constitución o transmisión de cualquier derecho real de goce limitativo del dominio sobre los terrenos.

Sobre los valores a que se refiere este apartado no se realizará ninguna adición de gastos, mejoras u otros conceptos, ni se efectuará ninguna actualización por el transcurso del tiempo.

En el supuesto de que en los valores tomados como referencia para determinar el incremento de valor de los terrenos referidos en este apartado 2 no se diferencie de forma expresa el valor atribuible a la construcción y el atribuible al suelo, se tomará como referencia la proporción existente respecto al valor catastral vigente en el momento de devengo de este impuesto, del valor del suelo y el valor de la construcción.

3. Las fechas a tener en cuenta a efectos de determinar los valores a que se refiere el apartado 2 anterior, serán las correspondientes a la adquisición del terreno o, en su caso, a la constitución o adquisición del derecho real de goce limitativo del dominio, y a la fecha de su transmisión o, en su caso, de la constitución o transmisión del derecho real de goce limitativo del dominio.

4. En el supuesto de que no exista incremento de valor del terreno de acuerdo con lo dispuesto en este artículo, y a efectos de futuras transmisiones, se tomarán en consideración los valores correspondientes a los momentos de adquisición y transmisión del terreno por parte del futuro transmitente.

5. En los supuestos en que no exista incremento de valor de los terrenos de acuerdo con lo señalado en este artículo, se mantendrá, en todo caso, la obligación de presentar la declaración regulada en el artículo 7 de la Norma Foral 16/1989, de 5 julio, del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

6. En el supuesto de que exista incremento de valor de los terrenos de acuerdo con lo dispuesto en este artículo se procederá a determinar la base imponible, la cuota tributaria y los demás elementos configuradores del impuesto sobre el incremento de los terrenos de naturaleza urbana, de acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral 16/1989, de 5 de julio.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Única. Régimen transitorio aplicable en relación con el impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.

1. 2017ko martxoaren 25a baino lehenagoko sortzapena duten zergen likidazio irmoak.

Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak 2017ko martxoaren 25a baino lehenagoko sortzapenei bada-
gozkie, eta data hori baino lehen hartu badute irmotasuna, ez
zaie aplikagarria izango foru dekretu-arau honek artikulua baka-
rrean xedatutakoa. Horren orde, erregela hauek aplikatuko
dira:

1.a.— Ez da zilegi izango zuzenketak, bihurtaketak edo itzul-
ketak egitea foru dekretu-arau honetako artikulua bakarrean
jasotakoan oinarrituta.

2.a.— Autolikidazio eta likidazioekin lotuta hasitako zerga-
bilketa prozedurek aurrera egingo dute erabat amaitu arte, eta
geroratu edo zatikatutako zerga zorrak beren osoan exijituko
dira.

2. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergarengatik
2017ko martxoaren 25etik aurrera egindako likidazioak, data
hori baino lehenagoko sortzapena dutenak.

Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak
2017ko martxoaren 25etik aurrera egin badira eta haien sortza-
pena data hori baino lehenagokoa bada, likidazio horiei aplika-
tuko zaie foru dekretu-arau honen artikulua bakarrean xedatuta-
koa, baldin eta data hori baino lehen sortzapean horiengatik ez
bada egin irmotasuna hartu duen likidaziorik.

3. Berraztertzeo errekurtsua jarrita duten likidazio ebatzi
gabeak.

2017ko martxoaren 25ean ebatzi gabe dauden berraztertze
errekurtsuak foru dekretu-arau honen artikulua bakarrean xeda-
tutakoa kontuan hartuz ebatziko dira.

4. Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan edo udaletako
auzitegi ekonomiko-administratiboetan dauden espedienteak.

Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak eta udaletako
auzitegi ekonomiko-administratiboek kasuan kasuko udalari
bidali behar dizkiote ebatzi gabe dituzten espedienteak, haiek
zer ikusirik dutenean 2017ko martxoaren 25a baino lehen-
goko sortzapenean hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga-
rekin, eta, behar den kasuetan, udalak likidazio berriak egin
beharko ditu foru dekretu-arau honek artikulua bakarrean xeda-
tutakoa kontuan hartuta.

Aldi berean, prozedurak amaitutzat emango dituzte, nahiz
eta horrek ez duen eragotziko egiten diren likidazio berrien
aurka interesdunek erreklamazioak aurkeztea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Xedapenak emateko ahalmena.

Baimena ematen zaio Diputatuen Kontseiluari foru dekretu-
arau hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak
eman ditzan.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu-arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argita-
ratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2017ko mar-
txoaren 25etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2017ko martxoaren 28a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jabier Larrañaga Garmendia.

(2240)

1. Liquidaciones firmes correspondientes a devengos
anteriores al 25 de marzo de 2017.

En relación con las liquidaciones del impuesto sobre el
incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana,
correspondientes a devengos anteriores a 25 de marzo de
2017, que hayan adquirido firmeza con anterioridad a dicha
fecha, no les resultará de aplicación el artículo único del pre-
sente decreto foral-norma y, en consecuencia, se aplicarán las
siguientes reglas:

1.^a— No procederán rectificaciones, restituciones o devolu-
ciones basadas en la aplicación de lo previsto en el artículo
único del presente decreto foral-norma.

2.^a— Continuarán hasta su completa terminación los procedi-
mientos recaudatorios relacionados con las mismas y se exi-
girán íntegramente las deudas tributarias aplazadas o fraccio-
nadas.

2. Liquidaciones del impuesto sobre el incremento del
valor de los terrenos de naturaleza urbana practicadas a partir
del 25 de marzo de 2017, correspondientes a devengos anterio-
res a dicha fecha.

Lo dispuesto en el artículo único del presente decreto foral-
norma resultará de aplicación a las liquidaciones del impuesto
sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza
urbana, practicadas a partir del 25 de marzo de 2017, correspon-
dientes a devengos anteriores a dicha fecha, siempre que con
anterioridad a la misma no se hubiese dictado liquidación que
hubiera alcanzado firmeza correspondiente a dichos devengos.

3. Liquidaciones recurridas en reposición y pendientes de
resolución.

Los recursos de reposición que se encuentren pendientes
de resolución a fecha de 25 de marzo de 2017, se resolverán
teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo único del pre-
sente decreto foral-norma.

4. Expedientes en el Tribunal Económico-Administrativo
Foral o en Tribunales Económico-Administrativos Municipales.

El Tribunal Económico-Administrativo Foral y los Tribunales
Económico-Administrativos Municipales remitirán a los ayunta-
mientos correspondientes los expedientes pendientes de reso-
lución relativos al impuesto sobre el incremento de valor de los
terrenos de naturaleza urbana referidos a devengos anteriores
a 25 de marzo de 2017, para que practiquen, en su caso, nue-
vas liquidaciones teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo
único del presente decreto foral-norma.

Al mismo tiempo, declararán conclusos los procedimientos,
sin perjuicio de las reclamaciones que puedan interponer los
interesados contra las nuevas liquidaciones que se dicten.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Habilitación normativa.

Se autoriza al Consejo de Gobierno Foral para dictar cuan-
tas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución
del presente decreto foral-norma.

Segunda. Entrada en vigor.

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el día de su
publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y surtirá efectos
desde el 25 de marzo de 2017.

San Sebastián, a 28 de marzo de 2017.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Jabier Larrañaga Garmendia.

(2240)